

MARTIN LANDERRETXE,
euskaltzain apeza,
(1842-1930)

Biarritze, 1994.07.01

Xabier Diharce "Iratzeder"

Martin Landerretxe, euskaltzain apezaz bi hitz erran behar eta, bannindagon: zergatik niri izan ote zait galde hori egina?

Landerretxe bezala Lapurdi-n bizi naiz eta Landerretxe bezala lapurtar-euskaraz ari. Egia da.

Bainan, gehiago dena! ez ote naiz Euskaltzaindian haren ildo bere-tik sartua? Landerretxe-ren ondoko euskaltzaina, 30-ean Elissalde-Zerbitzari izan zen; eta Elissalde-Zerbitzari-ren ondokoa... 62-an ni.

1. Ez dut nik Landerretxe bera ezagutua; Zerbitzari bai. Hona zer zioen hartaz bere sarrera-hitzaldian:

"Landerretxe apeza ehun urteeri buruz abiatua zen... Berak ez omen zakien nun sortua zen, are gutxiago noiz sortua zen. Beraz nola finka zaharra zela?

Dena dela, Landerretxe apezak ehun eta berrehun urte balin bazi-tuen ere, norbeit zen oraino... Ez ote zaizko aski espantuka ari obra gu-ziak?

Espantuka guziz, hainbertze eta hainbertze urtez halako artarekin, erdaratik euskararat itzulirik, argitaratu dituen *Fedearen hedameneko li-buruak*?

...Norbeitek erraten balaut ez dela beti errex errex haren eskuara... Egia hau da: bere itzal ttiki guztien gatik, ainitz egin duela eskuararen alde Landerretxe apezak." (*Euskera*, 1931, 69-70.orr.).

2. Larogoita ta zazpi urtetan ari zen beti, bi hilabeterarik, berro-goita hamar orrialdeko agerkari hori euskaralatzten.

- Lan handi hortaz bertzalde, baditu zazpi laburragokoak *Euskal-esnalea-n* argitaraziak; eta bertze zazpi *Revue Internationale des Etudes Basques* agerkari jakintsuan.

- *Euskera* aldizkarirat baditu lau igorriak: “Erran zuhurak” (1925 eta 26-an), “Erran zuhur eta errankizun adituzkoak” (1927 eta 28-an).

- *Gure Herria* hilabetekarian ere irakur ditake haren 1928-ko “Orroi-tzapen bat”.

OHARRA:

1. *Euskal-esnalea-n:*

1911-an “Ateraldiak”.

1912-an “Erosizko bi musu”.

“Gizon gaztea”.

“Arrosarioa eta ministro-ezoraikoetarik”.

1916-an “Nere Jaun Legasse aphezpikua”.

“Sinhetsi, obedecer”.

1917-an “Divergence grammaticale”.

2. *R.I.E.V.* agerkari jakintsuan:

1980-an “Eraskuntze”.

1909, 10, 12, 13 urtetan “Euskaltzaleen Biltzarra”.

1910an “Un équivalent du proverbe: Urrungo eltzea urrez, gutarat orduko lurrez”.

1911-an “Euskal-hitz, Alhabe apezak bilduak”.

3. *Euskera* aldizkarian:

1925-26-an “Erran zuhurak”,

1927-28-an “Erran zuhur eta errankizun adituzkoak”.

3. Bere barneko xede eta ametsat aipatu ditu, argi eta garbi, 1905.eko idazki batean: “Aphurka zahar eta berri ahutara bet, Eskuaren alde”.

Hastetik hau dio:

“Eskualdunen beren eta gehienik Eliza gizonen baitan datza Eskuaren etorkizuna: hala nola Eskuara baitugu, Fedearen gutartean begiratzeko laguntza baliosenetarik. Eta horra zer ikusiz, xede hartu dugun *Aphurka* hau irakurtzerat emateko, *Eskual-Herriari* eta guzien gainetik Eskualdun *Apez-gaieri*.”

– Mila bederatziehun eta zortziko Euskaltzaleen Biltzarrerat bildu jauneri ere, oihu hau bota zioten:

...“Ez zautzue bada, lagun maiteak, auhendagarri eta ahalkagarri gindukela, arbasoetarik dathorkigun mintzaira, menderen mendetako, behar baginu gure ezazolkeriaz, erdara baten edo bien zangopetarat erortzen eta hala suntsitzen ikhusi?” (*R.I.E.V.* 1928, 620.or.).

– Hemezortzi urte lehenago, errana zuen jadanik Donibane-Lohizuneko biltzarrean goraki:

“Guziek dakiguna, jaunak, eta gogotik gal ez dezakeguna da:

Biltzarraren xede bereziena dugula Euskarari *iraupen* ematea.

...Ez da (hori) deus bertzerik, baizen ere *Euskaraz mintzatzea*, zeren-eta, erdaraz mintzo garen aldietan, lokhartzerat uzten baitugu Euskara; eta lo hori aski luza lakioken eta, bertzerik ez bailiteke, baizen ere Euskararen leihierako lo edo heriotzea” (*R.I.E.V.* 1910, 599.or.).

4. Landorretxe apezak egin-ahalak egin ditu, ez ditzen ez euskara eta ez euskal-bihotzak hil.

Joan mendeko berrogoita bian Duzunaritze-n sortua, hogoita sei urtetan apeztua, lau urtez egon zen Larresoro-n erakasle, bi urtez Maulen bikari, bertz urtez Aiziritze-n erretor bai eta gero Oraarre-n bederlatzi urtez.

Berrogoita zazpi urtetarat-baizik ez zen heldua; baina, osagarriak ez lagundurik, erretorgoa utzi zuen, apez soil-soila bizitzeko.

Ez zen, haatik, alfer daudezken hoitarik: euskarazko lanetan hasi zen. Larrogoita hamabiaz geroztik, *Misionen* aldizkaria hark hartu zuen bere gain; eta hogoita hemezortzi urte luzez bi hilabetetarik argitarazi.

Hasi zen ere Euskaltzaleen arterat agertzen. Mende honetako hermeretzian Euskaltzaindia sortarazi zuten lehen hamabi euskaltzainetarik bat izan zen; guti baitzitaken hura baino biltzarretan jarraikiagorik.

5. Gudaldi beroenetan erortzen diren gerlariak bezala, hogoita hamarreko urtarrilean, Euskaltzaindiko bilkuran eri handi erori zen.

Azkue eta Lacombe jaunek Ezpeleta-raino lagundua izan zen; eta han, lau egunen buruan, hil.

Hau zioen hartaz, ondoko igandean, *Eskualduna* astekariak: “Bazuen hemezortzi urtez goiti, Ezpeleta-rak jina zela... Xahar kartsu eta ernea. Ikustekoa zen aldare eta kurutzearen aintzinean egiten diren agurretan, harek nola belaunaz lurra unkitzen zuen oraino, beattarrek bezein untsa.”

Belauna bezein arin ere zuken oraino boza: duela zenbeit aste, Erretor berria sartzearekin, harek ziozkan ongi-etorri koplak eman.

* * *

L'abbé Martin Landerretche, décédé à Espelette en 1930, fut l'un des douze premiers de l'Euskaltzaindia et un traducteur infatigable des “Annales de la Propagation de la Foi”. Ce qui représente une cinquantaine de pages traduites en basque, tous les deux mois, tant au long de trente huit années.

De lui, l'abbé Lafitte a eu dit: “Le vieil académicien s'appliqua des années durant à (...) des traductions littérales, très méritoires sans doute devant Dieu, mais assez éloignées du génie basque” (Conférence du 3-4-1941).

Du fait de sa santé déficiente, il avait dû renoncer à sa fonction de Curé d'Orègue; ce qui, en fait, le libéra pour des travaux de longue basque.

Il fut, au fond, une de ces grandes âmes qui, de leur déficience, savent tirer un surcroît d'efficacité.

Lu à l'approche de l'an 2000, son exemple suscite des imitateurs.